



Sakanako mobilizazioei jazarpena egiten ari zaie Guardia Zibila

SAKANAKO AEM ETA ETXARRIKO GAZTE ASANBLADA :: 23/05/2020

Sakanako AEM eta Etxarriko Gazte Asanbladaren salaketa

Ohar honen bidez, Sakanako Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak eta Etxarriko Gazte Asanbladak salatu nahi du, Etxarri eta Altsasuko plazan egunero egiten diren kontzentrazio, kotxe karabanak eta manifestazioak grabatzen dabilela Guardia Zibila.

Oztopo, traba eta mehatxuen gainetik, Patxirekiko elkartasuna plazaratzen tinko jarraituko dugula adierazi nahi dugu. Gaur hiriburuetan egingo diren eta egunero herrietan egiten diren mobilizazioetan parte hartzeko gonbita luzatzen diogu Euskal gizarteari.

PATXI EZ ZAUDE BAKARRIK, HERRIA ZUREKIN!!!

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/sakanako-mobilizazioei-jazarpena-egiten-ari